

VIEJA LUNA DE BILBAO. CRÓNICAS DE MI GENERACIÓN

Zulaika, Joseba
Nerea argitalexea, 348 or.
Donostia, 2014

Sarrera

Zulaikak berak dioenez, naufragioaren ondoren idatzitako liburua da berea, inori kontseiluak emateko baino gehiago bizitzari aurre egin eta bizirik dagoela sentitzeko moduan idatzitakoa. Memoriaren eta etnografiaren arteko liburu bat da, haren belaunaldiaren kontzientzia arakatzen duena, eta haatik liburu autobiografikoa ere bihurtzen da. Narrazioaren abiaburuan, Bilbora itzultzea izan da Zulaikarentzat bere gaztaroaren oinarritzko gunearen aitormena egitea bezalaxe, gaztaroan erdi ihesi utzitako hiriaren oroimen-zaurietara berriz itzultzea. Liburu honen bitartez, halabeharrez, gaztetako desioarekin amestutako munduaren ilusioa pentsamendu berri batetik berreskuratzeko ahalegina egin du egileak. Berreskurapen-sentsazio intimorori, garai bateko bizipen, gertaera eta eduki berberak idazketaren bitartez errepikatu eta berregin dituen gertatu zaio atsegin. Izan ere, oraingoan, beste errealismo berri batetik garatu ahal izan ditu, eta batez ere, norberak ondutako biografiaren emaitza baten ondorioan. Egilearen berreskurapen-sentsazio intimorori, subjektiboki, pizkunde baten modukoa izan da harentzat, sentsazio horretatik konturatu baita iraganeko naufragio guztiek zentzu bat izan zutela.



1. irudia. *Vieja luna de Bilbao. Crónicas de mi generación*, argitalpenaren azala.

Bilbo hiria narratibaren epizentrotzat harturik, gure errealitate kulturalaren iraganeko alderdi gordinekin aurrez aurre jartzen gaitu egileak. Filosofia, psikoanalisi eta antropologiaren tresna kontzeptualak darabiltza murgilketa-lan horretan. Nire irudikoz, psikoanalisiak Lacanen bitartez erabilitako *erreal*¹ kontzeptua dago lan honen hondoan, errealitate sozio-politiko-kulturalaren konplexutasuna adierazteko tresna kontzeptual baliagarria bihurtzen duelarik, etnografia egiteko arrasto kontzeptualtzat har dezakegu. Izan ere badago Zulaikarentzat, hizkuntzaren barruan eta giza errealitatearen barruan kabitu ezinik eta sinbolizatu ezinik gelditzen den errealitatearen alderdi bat, argi-itzaletan gure baitan bizirik eta indarrez bizi gaituen mundu zatia: horixe da *errealaren pasioa*² deituko duena, bere belaunaldiari bizitzea egokituko zitzaion errealitatearen alderdi gordin eta ulertezin hori azaltzeko erabiliko du. Politika-mailan, gairitu ezineko edo sinbolizatu ezinekoa da, gizartearen antagonismo funtsezkoenetan oinarritzen dena. Bizi izandako errealitatearen birsorkuntza horretan kokatu du egileak bere lumaren zeregin narratiboa, idazteko ariketa intentsibo eta konprometituan. Bere belaunaldiaren etenduretatik (*eten* edo *trauma*, Lacanen hiztegi psikoanalitikoari jarraiki) dimentsio kolektiboa eta norbanakoarena, biak ehundurik azaltzen dizkigu. Idazkera biluzia bihurtzen da harena, norbere biografiaren argi-itzaletan ziprztindua. Haustura horien heldulekutik osatzen du bere saio bikainaren abiapuntu subjektiboa. Haatik, haren narratibak egiak bilatzen ditu. Norberarenak eta kolektiboak. Muga-mugako ibilbide narratiboa bihurtzen da berea, gordina, zirrargarria, batzuetan gogorra, gehienetan jakin-minetik eta zentzu-egarritik sortutakoa. Funtsean, *errealaren* kontaketa norbere lurraren historia zatiekin (*hondakinekin* edo sinbolizatu ezinekin) osatutako narratiba alegorikoa bihurtzen da. Bere-berezkoa izanagatik ere, gu guztiona ere baden errealitate puska bihurtzen da. Baina batez ere, bere belaunaldiko jendartearen ispluan ulertu beharko dugun kontaketa da.

Lehen zatiari buruz

Narrazioaren abiapuntua Danteren infernutik egiten du egileak. Infernutik egin zuen Dantek bere eskakizun muturrenekoa, eta infernu hartatik aldarrikatu zuen Dantek fikzio eraikitzailearen bizi-berrikuntzaren funtzioa ezagutza ororen oinarrian dagoen *ez-izanaren* berpizkunde subjektiboa baino ez dela. Danteren infernuaren jaitsiera, Arestik, bere belaunaldiari emandako ikasgai oinarritzko bihurtua zuen ordurako. Arestirentzat, bakarrik Bilboko infernura jaitsiz gero ezagutu ahalko zen euskal egia. Arestiren agonia Bilbo langile eta euskaldunaren min agoniatikoaaren samin hilkorrena izan baldin bazen ere, hein handi batean, haren biografia ikusirik, bere gorputzaren hilotzean haragitutako egia bihurtu zitzaion bere azken arnasa

1. Erreal, kontzeptu kriptikoa eta ulertzeko zaila bihurtzen da Lacanen teorian. Betiere beste bi erregistroekin (irudimenezkoa eta sinbolikoa) loturan ulertu beharko dugu. Adierazlearen baitan atzematen edo atzitzen hain erraz uzten ez den errealitatearen alderdia erakusteko balio digu. Ikus, Lacan, J. (1953): «Le Symbolique, l'Imaginaire et le Réel», *Bulletin de l'Association freudienne*, 1, 1982.

2. Alain Badiouk, *errealaren pasioa* erabiltzen duen bezala, zera adierazi nahi da horrekin: errealitatearen alderdi iruzurtienak deseraikitzearen ariketa sistematikoa, zeinaren ondorioz gizakiak horren ondorena nahitaez pairatu beharko duen. Errealitatea larrutzeko ariketa intentsiboa, haren gaineko fantasia guztiak desegitea behartzeraino. Ikus Badiou, A. (2001): «El siglo. Cuestiones de método», *Acontecimiento*, 21.

eman zuenerako. Bilbo hura izan zen bere profezia haragiturik aurkezteko adorea izan zuen gizonaren Bilboko infernua: «Hemen behean, osin ilun honetan, Bilbao deritzan infernu honetan (...) maldan behera doa aguro/ nire gorputz biluzia».

Hiru hamarkada geroago kokatzen du Zulaikak bere burua lehen pasartean, San Felicísimo monasterioaren atarian. Haren gaztaroko naufragioaren denboraren itzulera dakarkigun pasartea da, *errepikapena* ahalezko egingo duen denbora narratiboa markatuko duena. Baina zer da errepikapenaren bidez egileak lortu nahi duena? Bizi-baieztapenaren zentzu berri baten eraikuntza orainaren eraikin subjektibo batetik. Horretarako, hiru hamarkada lehenagoko denboran murgiltzen gaituen denbora zeharkatzen du infernuko jaitsieran. Arlo pertsonalean, ateismora bihurturik, komentutik at ordurako, Londrerarako bidaia iheskorra oroituko duen denbora dakarkigu. Arlo kolektiboan, haren belaunaldiaren oinarritzko identifikazioak gatazkatsuak bihurtzen dira ordurako hainbatentzat: kristautasuna, ateismoa, nazionalismoa, sozialismoa, humanismoa, feminismoa, ETaren sorrera eta borroka armatua. Guztiak, hirurogeiko hamarkadako subjektu kolektiboa osatzen duten identifikazio gatazkatsuak bihurtzen dira gizarte-bizitzan, eta iraultza politiko, kultural eta soziala aldarrikatzeko indar kolektiboaren oinarrian daude. Baina ordurako, luzea da gerra zibilaren eragina eta Gernikako ondorena euskal gizartean. Guztiaren baturan euskal egiaeren konplexutasuna azaleratzen dihardu egileak. Esan liteke, bada, Gernikako zaurietatik esanguratzen duela Zulaikak Infernuaren dimentsio kolektiboa lehen atal honetan eta zauriaren hondoraino garamatza jasotzen dituen historiaren pasarte ineditoen bidez, Aita Patxi eta Von Richthofen egunerokoen bidez, esaterako. Hain zuzen, urte luzetako diktaduraren iraunkortasunetik abia eta Gernikako suntsiketaren zaurietatik uler liteke euskal historiaren egiairik lazgarriena kondentsatzen duen egitura narratiboa liburuaren lehen zatian.

Baina haren belaunaldiaren denborari dagokionez, *etenaren* bigarren izena ETaren sorrera eta borroka armatuaren bide gatazkatsua izango da. Lauaxetak, gerra zibilaren denboran, bere bizitza Euskal Herri fededunaren alde eman zuen bezalaxe, haren belaunaldiaren denboran, askatasunaren alde eman zuen bizitza Etxebarrietak. ETaren sorrerarekin batera jaioko da euskal gizartera hilketa eta martirioaren arteko ekintza fundazio-alean sortutako «subjektu tragikoa». Bere bizitza Aberriaren alde eman duenari ohore egiteko mendekua hartzera beharturiko subjektu mota aldarrikatzen duena da. Haren belaunaldiari, identifikazio handi horiengan behin fedea galdurik, abertzaletasunaren aldarean egindako sakrifizioaren gezurra onartzea baino ez zaio geldituko honezkero. Hain zuzen, sakrifizioaren gezur iruzurti horrek garamatza Lacanen ondorio jakinekora: ez dago «Beste» nagusirik. Lacanek dioen bezala bigarren heriotza sinbolikoa da beharrezkoa «Beste» handi horien legea deuseztatu dela onartzeko. Infernua uztea ahalbidetuko duen konbertsio subjektiboaren garaia markatuko duen denbora narratiboa bihurtzen da ondorena.

Bigarren zatiari buruz

Purgatorioa da infernuaren eta zeruaren artean dagoen tarteko pasabidea, atse-denik eta ametsik gabekoa. Han dagoenari asaldurazko pentsamendu eta emozioek

gainezkatzen diote arima. Bakerik gabeko lekua da. Zango-oinak bilurrez loturik dituztenentzako moduko tokia, burdinazko ezpata beharrezko egiten duen lekua.

Baina paradoxa psikoanalitikoaren hondoan zera dago: ez da bizirik dagoen aita *Legea* inposatzen ari dena, haren izenean berrizultzen den hildako aita baizik. Haatik, pentsamendu psikoanalitikoan, aita ahalguztidun eta aginduzale hori («Beste» nagusia hizkera psikoanalitikoari jarraiki) hila zegoen hasieratik. Ikusmolde horretatik, *ezak* eta *gabeziak*, norberaren ardura bihurtzen dira. Dogma erlijioso eta politikoen menpe luzaroan bizi ondorenean, nola idatzi, bada, orain errauts haietatik subjektibotasun berri bat? Bigarren heriotza sinbolikoaren abiapuntu beharrezkoa da honakoa. Aitaren izenean paradisuatik erbesteratua izan denaren antzera, berridazketaren aitortza erronkarik zailena bihurtzen da. Orain, borondate berri batetik eta identitate zaharraren errautsetatik birsortu beharko da mundu berri bat. Izan ere, berridazketarekin lortu beharrezkoa ez da hainbeste iraganean galdutako identitate edo kokapen finko baten berreskurapena, bilaketa prozesua beraren ondorioan eskuratu ahal izango den subjektu-kokapen berria baizik.

Purgatorioaren zeharbidean, egileak, Gernikako eta ezkerraldeko errautsetatik birsortutako hirian kokatzen gaitu. Baina nola irten hiri horren labirintikotik Dantek eta Joycek purgatorioarekin egin zutenaren antzera? Ez ote da izan bide sakrifikatzailearen itsutasuna labirintoaren erdigunean baina hain ezkutuan geneukan Minotauro itsu eta anker horren itzala baino? Jorge Oteiza izan baldin bada kulturalki euskal pasioa ondoen islatu duen eskultorea, bere hutsaren aitortzak onartzen du ondoen Minotauro horren porrota eta hondamendia. Oteizaren esfera hautsia mundu baten hondakin zatiak bereganatzeko bokazioarekin jaio zen bezalaxe, gaur birsortzen ari den Bilbo hiri berriaren kohesio-irrika ondo jasotzeko moduko balioa duela erakusten digu. Baina oraindik iraganari begira, gogoan izan behar dugu Oteizak sortu zuela zerurantz garrasi eginez semea besoetan zuen amaren irudia, Pietate izenez ezagunagoa. Oteizaren artelana egia eta aldaketaren beharrian bila sortutako artelana izan baldin bada, Oteizarena izango da euskaldunaren *ez-izana* ondoen jasoko duen arte mota. Hain zuzen, euskal «subjektu tragiko»aren adiera kulturalari ondoen gerturatu zaiona. Izan ere, egilearen ustez, gure erreferentzia kulturaletatik abiarazita, Oteizaren Pietatea lanaren *erreal* lakaniarrean irakur liteke ondoen Etxebarrietaren tragedia.

Baina nork baretuko zuen ordurako Minotauroaren haserrea labirintoaren erdigunean? Ez al zen Ariadna Minotauroaren ankerkeria eta krudeltasuna baretzeko ahala izango zuen irudi emea? Euskal gizartearen historia tragikoenean, «Aberria ala hil» aldarriaren izenean izan zen Yoyes sakrifikatua. Minotauroaren haserrea baretuko zuen hilotz bihurtzen da harena. ETaren heroitasun eta botere maskulinoari aurre egingo dion emakumea bihurtzen da Ariadna. Emetasunaren indar horretatik eta pitzadura horretan sartutako argi-itzaletik ematen zaio bide berpizkunde berri bati, aro garaikidearen atarian gorderik geneukan *erreal*aren puska gordinenaren abiapuntu nahitaezketik.

Hirugarren zatiari buruz

Gaur, egilearentzat, Gehryren Guggenheim museoa, hiri berriaren berpizkundearen adierazle bihurtzen da. Bilboko itsasadarrean kokaturik, Euskal Herri osoko eraldaketaren itsasargia baillitza dakusa eraikin berria. Bere sabaiaaren estalduratik begira hasiz gero, erdizka irekitako arrosa lore-hostoaren itxura hartzeko moduko eraikin abangoardista da. Argia eta etorkizunaren irekiera adierazten duen formak barnatzen ditu. Guggenheim bihurtzen da gaur Minotauroaren labirinto berria, bere ondoan Burgoisen Ama armiarma alboan duelarik. Bere baitan naufragio ondorengo hondakinak baitarazten ditu, baina, esan liteke Guggenheim dela hondamendia gaudituz ondorengo «itsasontzi naufragoa». Guggenheim, bere Jeef Koonsen Puppy zakurtxo loratuarekin, gaurko garaia ondo atxikitzen zaion titaniozko eraikin erakargarria dela ikusten da. Baina Koonsen artelan ironikoak gaur, hiri baten desiren nahi eta ezinekin baino, kontsumismoa eta irudia hobesten dituen gizartearekin zerikusi gehiago du halabeharrez. Oteizaren artea euskaldunaren zentzu tragikoarekin ondo atxikia baldin bazetorren, Koons eta Gehryrena, Bilboko gizarte-kontsumo eta fantasia berriekin askoz hobeto dator. Ikuspegi horren haritik, Bilbo gogorrenaren identitate edipikoak bide ematen dio kulturalki irekitzen ari den identitate-kokapen berriari, bakearen eta askatasunaren garai berriaren kokaleku bihurtzeko.

Baina non dago honezkero Ariadna, labirintoa zaintzen lagunduko zuen maitale arketipoa? Ez ote da Burgoisen Ama armiarma labirintoan itxiturik egondako Minotauroa askatzeko ahala izango duen emetasun-irudi eraberritua? Arestiren Bilboko tradizio maskulinoan Gernikan Txillidak kokatu zuen «aitaren etxea» eskultura-lana ondo egokitzen zen bezala, orain Burgoisen armiarmak, «amaren etxea» adierazten duen Bilbo emeagoren irudi berria ematen du. Itsasadarrak zeharkatzen duen Bilbo emeagoaren irudia oraindik barne-gatazkan murgildurik baldin bada ere, itsasoratzen da eraikinetik hain gertu. Haatik, galde dezakegu, Oteizaren Arantzazuko eskulturaren *erreal* lacaniarra Etxebarrietaren tragediak markatu baldin bazuen, zein da orain Bilboko artelanen *erreal* lacaniarra?

Gernikako omenaldi gisa kokatu zuen Geheryk titanioko arrosa Guggenheim sabaian, eta Danteren poeman bezala, arrosa bihurtzen da bidaia hasieran eta bukaeran aurkitutako suzko frogaren adierazle alegorikoa. Bai Dante eta bai Blakeren ikuspegitik, objektua ez da sinbolo edo alegoria hutsa, objektua bera bihurtzen da benetakoena, Gehryren titaniozko arrosa bihurtzen da errealea hiri baten irudi berriarentzat. Bilbo hiriaren hondakinetatik eraikitako titaniozko forma irudimentsuek, ezkerreko itsasadarraren hondakin baztertuenekin batera, hiri berriaren argitarantz begira jartzen gaituzte. Iraganaren gurutzera (Gernikako hondamenditik hasita) bihurtzen da *erreal* eta arrosa haren berpizkunde adierazkorrenaren sinboloa. Gaur labirintoaren arkitekturak ezagutzera ematen du Bilbo berria, «naufragio»aren berpizkundean adierazita dator hein handiengan. ETA bihurtzen da honezkero belaunaldi batek labirintoaren erdigunean gorderik zeukan minotauro itsu eta ankerra. Baina orain, itxituraren hesiak hautsi direlarik, askatasunaren amildegia bihurtu zaigu benetako labirintoa.

Gaur, labirintoaren erdigunea ez dago mundu itxiaren makurduran giltzapeturik, mundu mugagabearen trantsiziorantz askabidearen ateak irekitzeko irrikaz baizik. Ariadna eta Minotauroa ez daude giltzapeturik honezkero. Guggenheim bihurtzen da Bilbo eraldatuaren «itsasontzi naufragoa». Egoera berria hau, ezer finkoa barik, abiapuntu berri baten hasiera baino ez da, «hiri berri»aren kokapen kultural birsortua. Belaunaldi baten Jainkotegien hondoramenetik «gorputzen berpizkundea» adieraziko duen abiapuntu berri baten hasiera.

Bukaera gisa

Zulaikak dioenez, badugu subjektu guztiok oinarrian fantasia funtsezko bat, eta fantasia horren azpian dagoena bizitzaren gordinak ustekabeaz azaltzen duenean, nor garen eta zertan ari garen ez dakigula kolpez uzten gaitu. Ordu artean zentzu bat emandako ideologia, diskurtso eta balio guztiak hankaz gora gelditzen dira, eta errealitate hautsiarekin eta hutsalarekin gelditzen da gizabanakoa. Liburu honen abiapuntuan belaunaldi oso baten naufragioaren sentsazio subjektiboa aurkitu dugu, subjektu kolektibo baten fantasiei eusteko sortutako «Beste» jainko handi haien porrotaren aitortza. Porrot haien heldulekutik eta garaikidetasunaren ikuspegi berri batetik, errealitate haiek berriz berreskuratu ahal izateko ahalegin irmoa egiten du idazleak bere obran. Haatik, hor kokatu dugu ETaren sorrerak markatutako errealitatearen eragin bortitza bere belaunaldiarengan arlo kolektiboan edota ateismotik bizi izandako konbertsio subjektiboaren *etena* arlo pertsonalean. Bizipen pertsonal eta kolektibo haien oinarritik, «hiri berri»aren promesa berreskuratu ahal izan du egileak bere obraren amaiera iristen denerako.

Jexux Larrañaga Arriola